

9. Kostuen egitura

Canvas eredu azken atal honetan kostuak kalkulatuko ditugu.

Negoio-eredu batzuek prezio baxuak dituztelako funtziona dezakete, beste batzuek berriz, gure zerbitzua bezala, duten kalitate-maila handiagatik.

Kostuak kalkulatzeko kontuan izan beharko ditugu, funtsezko baliabideak, funtsezko jarduerak eta azkenik funtsezko elkarteak.

Gure negozio-eredua, kostu egitura kontuan hartuta; balioan oinarritutako negozio eredu izango zen, hau da; gure zerbitzuaren interesa ez da kostuak minimizatzea, baizik eta bezeroari eskaintzeko balioa sortzea, gure zerbitzuaren kalitatea zainduz.

Gainera eskaintzen ditugun modu eta zerbitzua eksklusiboak (gure zerbitzua haurrentzako zuzenduta dagoenez beraien egoeretara egokituko dugu), pertsonalak eta hurbilak izango dira.

Hainbat kostu mota daude, kostu finkoak, kostu aldakorak, eskala-ekonomiak eta zabalkunde ekonomia. Gure enpresak kostu finko eta aldakorak izango ditu; kostu finko bezala lokalaren alokairua daukagu, lokal horretan beharrezko materiala eta ekintza desberdinak antolatzeko txokoa izango da.

Kostu finkoez gain kostu aldakorak ere izango ditugu; material desberdinak erosi beharko ditugu baina beti ez dugu material kantitate berdina erosiko.

Publizitatea ere ordaindu beharko dugu, batez ere enpresa zabaltzen denetik 2 hilabetera arte gutxienez. Gure enpresa, urte batzuk igaro ondoren eta irabazi iturri nahikoa izanez gero, telebistan gure enpresa ezagutzeko berriak grabatu eta bidaliko ditugunez, berri hori ordaindu beharko dugu.